

IKASLEEN TXOKOA 95. ZENBAKIA

Lanbide heziketa

GIZARTE BERRIKUNTZAKO LHII

Egileak:

Ainhoa Garmendia, Sarai Leo, Gorka Lekuona, Ekain Perera, Leire Garcia, Aitzol Mendibil, Jone Dorronsoro, Aimar Zugasti, Selena Aranburu, Ainitze Bengoetxea, Irene Igartua, Ioseba Olano, Maider Tamayo, June Ugarte, Joseba Iriarte, Darling Orellana, Aicha Bangagne eta Kima Hirigoyen.



Generoa ez da modernismo bat

Gaur egun, gizarte zis-hetero-patriarkal honetan genero arauak hausten badituzu «helikoptero», «pinguino» edo eta «kalashnikov» bat zara.

Jaio, bizi eta hil, hori da izaki bizidun orok dugun bizitza, denok haurdunaldi baten fruitu gara eta espezie bakoitzak haurdunaldi ezberdina dugu. Gure kasuan, 9 hilabeteko haurdunaldia izaten ditugu eta haurdunaldiaren bostgarren hila-betean, haurraren sexua zein den ziurtatzen digute eta hortaz mutil edo neska den jakiten dugu. Genitalen arabera, genero bat edo bestea inposatzen digute eta esleitutako genero horren arabera, hezkuntza-mota bat edo beste jasotzen dugu jaio aurretik hasten dena, batez ere logelen dekorazioan etab.

Mutilen kasuan, nahiz eta onartzea kostatu, futbolarekin hezten gaituzte, gauza urdinak eta «maskulintzat» hartzen den guztiarekin. Nesken kasuan berriz, sukaldaritza, garbiketara, panpin eta generalean gau-

za arrosekin hezten digute hau da «femenintzat» hartzen den guztiarekin.

Denboran zehar hazten joaten gara eta hor datoz askorentzat arazoak. Nerabazarora iristean batez ere, eraldaketa izugarria jasaten dugu eta geure buruari galderak egiten hasten gara, bai eta geure burua ezagutzen. Hortxe iristen da eskusio garaia gizarte honetako arau normatiboak hausten dituzten ororentzat. Hainbat arrazoiengatik jasaten dira, homofobia, arrazakeria, gordofobia... Horien artean gehienetan ezkutuan, transfobia eta genero identitatearekin zer ikusia duten eraso eta diskriminazioak ohikoak dira.

Genero identitatearen aurkako diskriminazioak, gainera, askotan, eskolatik eta nerabee-tatik at dauden kolektiboek, herriarrek sortzen dituzte, hau

da, ez dela gazteen kontu bat.

Gure gizarte hau, ez dago hezita ez eta prestatuta emakume edo gizon izatetik kanpo bizi diren guzti horiek errespetatzeko ez eta ulertzeko ere. «Hori gaur egungo moda bat da», «orduan zer zara, helikoptero bat?» eta halako esaldiak ohikoak dira gizarte honetan, eta nahiz eta oso aurreratuak gaudela pentsatu, duela 4 urte Hazte Oír erakundeak «los niños tienen pene. Las niñas tienen vulva. Que no te engañen» lelopean, atera zuen autobusa gizarte honen ispilu eta erakusle zuzena da.

Uste dugu gure gizarte eta kultura onena, benetakoa eta balio duen bakarra dela eta ez gara ohartzen beste hainbat kulturetan ez dela zis-hetero ereduia segitzen. Esaterako Albaniako Burneshak uko egiten diote sexualitateari, «familia-



ko gizonaren» papera hartzeko. «Bihurtzen» direnetik, gizon gisa tratatzen dira, eta «gizonezkoentzako arropa», armak eta gizon edo emakumezkoentzako edozein jarduera egiteko aukera ematen dute. Albanian bezala, Australian, Madagaskar, Indian etab. ere, era askotako generoak topatzen ditugu binarismotik kanpo daudenak.

Hortaz ez, gure gizarteak horrelako gauzak ez ezagutzeak ez du esan nahi ez-binario, agenero, genero fluxu eta beste hainbat generoekin identifikatzen garenok modan dagoen zerbait jarraitzen dugula.

Egilea: Joseba Iriarte Huici

'Bazen behin Hollywooden' filmaren Kritika

'Bazen behin Hollywooden', 2019an Quentin Tarantinok zuzendu eta idatzitako komedia-drama bat da.

Quentin 60. eta 70. hamarkadetan Los Angeles hirian bizi izan zen. Hiriarekiko zein garai horrekiko sentitzen duen lilura eta miresmena adierazi ditu pelikularen bidez.

'Bazen behin Hollywooden', Quentin Tarantinok dioenez Hollywoodentzat maitasun gutun bat sortu du. Filmak, ezin hobe isladatzen du 60ko hamarkadako Los Angeleseko giroa: musika, atrezzo, auto, estilo eta janzkeren bidez. Harrigarria da soinu bandak ikuslea pelikulan murgiltzeko duen indarra.

Filmak, gaur egungo zinemaren bi izar handienak lehen aldiz elkartzen ditu: Brad Pitt eta Leonardo DiCaprio. Bi aktore hauek pelikulan zehar duten elkarrekintza ahaztezina da. Filma bi istoriatan oinarritua dago: Lehenengoa, Rick Dalton, (DiCaprio) Hollywoodedeko aktorearen eta Cliff Booth(Pitt) bere lagun minaren bizitzan, eta bigarrenaren Manson Familiak burututako Sharon Tate aktorearen (Margot Robbie) hilketan.

Egilea: Aimar Zugasti



Mikel: «Gustoa esango nuke inklusiyue lanketan aigeala»

Azpeitian, Gautenak zentro bat ireki berri du.

Denok dakigu zer den Gautena, baina definituko diguzu?

Gautena autismo espektruen nahasketie dakeben pertsonen senidien elkartie da. Helburue famili hauei laguntzie eman eta aukera egokiye eskeintzie da bizi-kalitate ona euki dezaben inklusiyuen alde ite deun gizarte baten.

Ze nolako eboluzioa izan du Gautenak? Zein da helburu orokorra?

Gautenak indun garapenan inguruen ezin dizuet asko lagundu, eztezelako bizi izen. Baiño autismo espektrua nahasmen due dakeben senidiek sortutakue dala jakinda burruka askon poderioz lortutako emaitze da gaur egungo Gautena. Helburu orokorra, beaien bizi-kalitate duin bat bermatzie da. Gañea zentru berri bat danez, aukerie dakeu dana Otik hasteko ifungo egitura jakifnik errespetata gabe. Otiken geuk sortu diteu eguneko estruktura danak, erabiltzaile bakoitzen behar, afiziyo, gustu ta gaitasunek kontuen hartuta.

Enpresan zenbatek egiten dezue lan? Zenbat parte-hartzaile daude?

Enpresan Gautenan eztaikit zenbat langille gean guztira baino Azpeitian bi etxebizitza (14 erabiltzaile, 7 etxebizitza bakoitzeko) eta eguneko zentruen momentuz 16 (14 etxebizitzako erabiltzaile eta bi externo eguneko zentroa soilik etortzeienak). Langilliek danea 16 gea.

Noiztik eta zergaitik zaude mundu hontan?

Ni 2016tik nao mundu hontan. Gautenan oaintxe hasi naiz aukerie sortu zitelako baiño beste hainbat lan inditut aurretik bestiek beste; Aspacen, Atzegein, adin txikiko etxebizitzatan, gaitasun mentala duten errehabilitazio psikosozialeko eguneko zentrutan eta sortu zaixkiten beste hainbat lan txikitan. Horrez gain, 17 urtetatik Atzegiko txolarte aisialdi taldeko boluntario bezelare banabil. Txikitatik down sindromie dauken lagun

bat euki det gelan eta beai esker hartu detela bide hau esango nuke.

Ze helburukin zaude Gautenan?

Gautenan Otiken hasi dan proiektu bat sortu eta beaien garapena ahalik eta duinena eta egokiyena izen dayela bermatzeko helburuekin nao. Eundoko ilusiyue iteit gañea, honen parte izetiek eta garapen hau barrutik bizitziek.

Zure egunean zehar zer funtzio/betebehar dituzu?

Egunen arabera estruktura diferente dakeunez egun bakoitzien ziherruntziyo desberdiefiek euki laizket. Betire ordie, oinarriyen inklusiyue, komunitateko parte-hartzie eta integratziyue uztartuz. Etxebizitzako erosketak ifn ahal izateko behar beste laguntza eman, beaien komunikatziyue hobetzeko edo sustatzeko aukerak eman, oztopo arkitektonikuei irtenbide bat bilau, beayen aisialdiye bermatu, higiene egoki bat mantendu, elikadura osasuntsu bat sustatu, sexualitate danon behar bat dala kontuen eukita lanketa bat ifn... eta beste hainbat funtzio nun profesionalki zein pertsonalki aurrea eman behar ditugunak eta ezin diteunak danak aipau puntuz-puntu.

Zer lantzen da integrazioa edo inklusioa? Zergaitik?

Gustoa esango nuke inklusiyuen lanketan aigeala. Baiño zorritzarrez inklusiyotik oso urrutigaudela iruitzezat. Atrebiuko nitzeke esatea oindikene integratziyo batea alleatzen aigeala. Kontuen eukita integratziyue, erabiltzaillien bizi normalizatu bateatik aigeala hitzeiten eta normalizatiyo hori eztala guztiz eman oindik. Ojala eunen baten hainbeste aldiz berbalizatze deun gizarte inklusibo batea alleau baiño ustet nik eztezela ezautuko hori.

Egileak: Leire Garcia, Jone Dorransoro, Irene Igartua eta Selena Aranburu




Mikel Subinas.



Beste zentro bat ireki du Gautenak Azpeitian.

Gurutzegrama



Horizontala:

1. Hernaniko mendian aurkitzen den ermita.
2. Everesteko gailurrera iritsi zen lehen euskalduna, Zabaleta abizenekoa.
3. Hernaniko paper fabrika kokatua dagoen bailara.
4. "Erremontearen katedral" bezala ezagutzen dena.
5. Hernanitik pasatzen den ibaia.
6. Santa Barbara mendian aurkitzen den taberna.
7. Zinkoenea plazan dagoen eskultura.

Bertikala:

8. Gipuzkoako Ipar-mendebaldean aurkitzen den mendilerroaren izena hartzen duen taberna.
9. Esne beltza taldeko trikitilari eta ahotsa dena.
10. Hernanin futboleko jokatzeko erabiltzen den zelaia.
11. Duela gutxi berririki den taberna, Hernaniko futbolin ikonikoena duena.
12. Hernaniko eta Urnietako mendiez inguratuta dagoen sagardotegia.
13. Bertsolari Txapelketa Nagusia irabazi zuen lehen pertsona.

*Egileak : Aitzol Mendibil,
Ioseba Olano, Ekain Pereira eta
Aimar Zugasti*

Erantzunak:
1- Santa Barbara
2- Martin
3- Zikuñaga
4- Galaretza
5- Urumea
6- Saretxo
7- Kontinium
8- Aralar
9- Xabi Solano
10- Zubipe
11- Bodega
12- Elutxeta
13- Txirrita